

Elgoibarko Udala
Ayuntamiento de Elgoibar



2007-2011 Legegintzaldiko
Plana: Proiektuak



AURKIBIDEA

1. proiektua	Mendekotasunaren arreta eta prebentzioa	3
2. proiektua	Berdintasuna eta laneko eta etxeko zereginak bateratzea sustatzea	5
3. proiektua	Aisialdi osasungarria eta biztanleria gaztearen partaidetza	6
4. proiektua	Pertsona etorkinen abegia eta arreta	8
5. proiektua	Egoera babesgabeen dauden pertsonen gizarte-kohesioa eta gizarteratzea	9
6. proiektua	Makina-erremintaren hiriburua	11
7. proiektua	Elgoibar Berritzen	13
8. proiektua	Prestakuntzaren hiria	14
9. proiektua	Hiri-espazio erakargarria eta kalitatekoa	16
10. proiektua	Merkataritza-gunea	17
11. proiektua	Ondarea balioztatzea eta erakargarri turistikoa	18
12. proiektua	Barne- eta kanpo-irisgarritasuna	19
13. proiektua	Etxebizitza eskuratzea sustatzea	20
14. proiektua	Kirolaren eta kulturaren hirira	21
15. proiektua	Ekintzak auzoetan	23
16. proiektua	Ingurumenaren iraunkortasuna	24
17. proiektua	Hiritarren arreta eta partaidetza	25
18. proiektua	Udal-kudeaketa eraginkorra	26
19. proiektua	Euskararen erabilera	28
20. proiektua	Udalaren gizarte-erantzukizuna	29
	Proiektu estrategikoen kudeaketa- eta jarraipen-baliabideak	30

PERTSONAK Elgoibar, pertsonen arretan erreferentea	1. proiektua Mendekotasunaren arreta eta prebentzioa 2. proiektua Berdintasuna eta laneko eta etxeko zereginak bateratzea sustatzea 3. proiektua Aisialdi osasungarria eta biztanleria gaztearen partaidetza 4. proiektua Pertsona etorkinen abegia eta arreta 5. proiektua Egoera babesgabeen dauden pertsonen gizarte-kohesioa eta gizarteratzea
ENPRESA- ETA LAN-DINAMIZAZIOA Elgoibar, Makina-erremintaren eta Prestakuntzaren hiriburua	6. proiektua Makina-erremintaren hiriburua 7. proiektua Elgoibar Berritzen 8. proiektua Prestakuntzaren hiria
HIRIGINTZA-HABITATA Elgoibar, bizitzeko eta bisitatzeko udal erakargarria	9. proiektua Hiri-espazio erakargarria eta kalitatekoa 10. proiektua Merkataritza-gunea 11. proiektua Ondarea balioztatzea eta erakargarri turistikoa 12. proiektua Barne- eta kanpo-irisgarritasuna 13. proiektua Etxebizitza eskuratzea sustatzea 14. proiektua Kirolaren eta kulturaren hirira 15. proiektua Ekintzak auzoetan 16. proiektua Ingurumenaren iraunkortasuna
UDAL ERAGINKOR ETA ERAGILEAGO BATERANTZ Elgoibar, kalitatearen kudeaketa duen Udala	17. proiektua Hiritarren arreta eta partaidetza 18. proiektua Udal-kudeaketa eraginkorra 19. proiektua Euskararen erabilera
ERREFERENTZIAKO UDAL BATERANTZ Elgoibar, gizarte-erantzukizuna duen Udala	20. proiektua Udalaren gizarte-erantzukizuna

Proiektu estrategikoen kudeaketa- eta jarraipen-baliabideak

1. proiektua

Mendekotasunaren arreta eta prebentzioa

PERTSONAK

Elgoibar, pertsonen arretan erreferentea

Elgoibarrek aurre eman beharreko erronketako bat zahartzen ari den, eta ondorioz, gero eta ezintasun- eta mendekotasun-indize handiagoak erakusten dituen biztanleriaren arreta da. Horren ondorioa talde horri zuzendutako gizarte-zerbitzuen gaineko presio gorakorra da (etxeko laguntza, eguneko egoitza, egoitzetako plazak, norberaren zerbitzuak...).

Mendekotasunaren arreta eta prebentziorako proiektuak bi jarduera hartzen ditu barne:

- Premien arreta eta estaldura hobetarako baliabide berriak sortzea. Eskualdeko interes eta irismeneko azpiegitura enblematiko bat eratzea proposatu da, adineko pertsonen arreta integraleko laguntza-zentro balioaniztun bat.
- Zahartze aktiboa sustatzea, adineko pertsonen gizartean aktore gisa zeregin garrantzitsu bat emateko lagungarri izango den gizarte-kohesioko elementu gisa. Halaber, mendekotasunaren sektoreari lotutako prestakuntzako eta enpleguko jarduera berriak sustatzea.

Adineko pertsonen arretarako eskualdeko zentro balioaniztun bat sortzea

Elgoibarrek alderdi on garrantzitsuak eskaintzen ditu mota horretako azpiegitura bat hartzeko: irisgarritasun oso ona, hirigintza-arloan aldaketarik eskatu gabe funtzio horretara birmolda eta bidera daitekeen eraikin baten erabilera, eta gainera, mendekotasunaren sektoreari lotutako lanbide-profilak har ditzaketen prestakuntzako baliabide batzuk ditu.

Aipatutako eraikina egungo Urasandi 1ean kokatutako Pilarreko Eskola da; hori birmoldatuta, Debako, Mutrikuko, Elgoibarko eta Mendaroko premiak ase ditzake, eta gaur egun erantzuna eskualdetik urrun bilatu behar duen zerbitzu-defizit bat estalita gera daiteke. Ekipamendu berri horrek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen II. Mapa integratu eta osatuko luke, hori zehaztu gabe baitago oraindik.

Zentroak irtenbideak garatuko lituzke eta adineko pertsonen kolektiboaren premia guztietara egokitutako arreta-ereduak konbinatuko lituzke (eguneko egoitzako lekuak, mendekotasun-maila ezberdinetarako egoitzetako lekuak).

Berehala heldu beharreko giltzarriak hauek dira:

- Proiektua gauzatzeko eta kudeatzeko formula aproposenak analizatzea
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin aldean konpromisoak jasotzeko eta protokoloa ezartzeko hitzarmen bat sinatzea.

**PERTSONAK
Elgoibar,
pertsonek
arretan
erreferentea**

Inpaktu handiko proiektu honek Elgoibar gizarte-politikako erreferente bihurtzea ekarriko luke. Udalaren aniztasun ekonomikoan aurrera egiteko zutoin egokia izango litzateke, gainera.

Zahartze aktiboa sustatzea (jarduerak, ekintzailatza, partaidetza...)

Batetik, osasun-egoera ona eta eskarmentua eta gizarteari ekarria egiteko gogoia dituzten adineko pertsonak "kapital" garrantzitsua izan daitezke udalerako (boluntariora aktiboa...). Bestetik, adineko pertsonak kirol, kultura eta aisialdiko berariazko eskaintza eskatzen duen kolektibo gero eta handiagoa dira, eta arreta eman behar zaie.

Horrekin batera, komenigarritzat jotzen da, bai zahartze aktiboaren bidezko prebentzioaren ikuspegitik, bai babesgabetasun- eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arretaren ikuspegitik, adineko pertsonen arretari lotutako prestakuntzako eta enpleguko jarduera berriak sustatzea.

Komenigarritzat jotzen da jarduera hori adineko pertsonekin eta biztanleriaren zati horrekin lotutako eragile eta erakundeekin lankidetzan, eta horien partaidetzarekin egitea. Hasierako lantalde baten partaidetzak ikuspegi bikoitz honetan jarriko luke bere arreta guztia: adineko pertsonak euren denboraren, eskarmentuaren eta egiten jakitearen ekarpena egiten duten aktore eta protagonista gisa, euren eta besteren bizi-kalitatea hobetzeko; eta adineko pertsonak zerbitzu publikoen hartzaile gisa.

2. proiektua

Berdintasuna eta laneko eta etxeke zereginak bateratzea sustatzea

PERTSONAK

Elgoibar,
 pertsonen
 arretan
 erreferentea

Proiektu honek berdintasun handiagoko udal baterantz jo nahi du, laneko eta etxeke zereginak bateratzea hobetzeko lagungarri izango den jarduera-sorta baten bidez.

Xede horretan laguntzeko formulak familien bizi-kalitatea eta jaiotza hobetzen dituzte, eta horiek bultzatzea, Elgoibar bezala erritmo bizian zahartzen ari den gizarte batean, guztiz bidezkoa da.

Hemen aurreikusitako jarduerak hartzaindegiko eta haurren arreta babesteko zerbitzuen egokitzapen kuantitatiboa eta kualitatiboa lortu nahi dute.

Jarduera hauek aurreikusi dira:

Hartzaindegi-zerbitzuaren eskaintza zabaltzea eta hobetzea

Dagoen eskari gorakorrari erantzuteko, hartzaindegi publiko berri bat irekitzeko bideragarritasuna analizatzea proposatu da. Bestetik, uneko eskaintzaren ordutegiek familiak jarduera edo ekitaldi batzuetan (ikastaroak, aisialdiko eta kiroleko jarduerak, kultura-arlokoak...) parte hartzea baldintzatzen duela pentsatzen da, eta horrek zenbait enplegu onartzeko erabakian ere eragin dezake.

Egoera babesgabeen dauden emakumeen eta emakume etorkinen arreta

Emakume etorkinek eta egoera babesgabekoek esparru horretan dituzten premiei berariazko arreta ematea proposatu da, euren baldintzatzaileak eta ezaugarri bereziak direla bidez.

Ekintzaitza eta eskaintza pribatuaren garapena bultzatzea

Ekimen pribatuak ekintzaitzarako bide bat aurki lezake eremu honetan, edo hitzarmen posibleak edo formula mistoak azter litezke.

3. proiektua

Aisialdi osasungarria eta biztanleria gaztearen partaidetza

PERTSONAK

Elgoibar,
 pertsonen
 arretan
 erreferentea

Biztanleria gaztea Legegintzako Planaren lehentasunezko interesguneetako bat da; horregatik proposatu da kolektibo horri zuzendutako kirol, kultura eta aisialdi osasungarriko jarduerak sustatzeko premia, alkoholik gabeko aisialdian oinarritutako ordezkotako aukera erakargarriak bultzatuta.

Aisialdi osasungarriaz kezkatzeak garrantzi berezia du Elgoibarren; izan ere, arrunki "botiloia" izeneko jarduera agintariak beti kezkatu dituen arazo bat izan da, eta orain arte ez du konponbide aproposik izan.

"Botiloia" fenomenoan gazteriak, masifikazioak, alkoholaren kontsumoak eta kanpo-espazioen okupazioak bat egiten dute, eta zalantzarik gabe, udalaren irisgarritasun ona bezalako alderdi on batean oinarrituta garatu da.

Haatik, irudi kaltegarri bat islatu eta herriaren bizi-kalitatea hondatu du, gatazkei, istripu-tasari, osasunari, pasealekuen murrizketari eta abarri dagokienez.

Beharrezkoa ikusten da arlo horretan jarduera positiboak areagotzea. Horretarako, ondorengo ekintzak proposatu dira:

Aisialdi osasungarriko programa biztanleria gaztearentzat

- Udalaren baterako adierazpena
- Sentsibilizazio-programa ostalaritzan
- Familiak sentsibilizatzeko programa
- Ikastetxeetan drogazaletasunaren prebentziorako kanpainak diseinatzea

Biztanleria gaztearen partaidetza sustatzea

Programa behar bezala diseinatzeko eta garatzeko, beharrezkoa da gazteriaren partaidetza lortzea, euren ideiak ekar ditzaten, nola aisialdiko ekimenei dagokienez, hala prebentzio-kanpainak edo euren intereseko beste gai batzuk antolatzeari dagokienez.

Ildo horretan, Gazteriaren Foroa eratzea proposatu da, lan-programa batekin proposamenak eta ekimenak gara ditzan, eta partaidetza bultzatzen duten jardunaldi eta ekitaldiak antola ditzan.

Jardunbide egokiak identifikatzea eta beste udalekin lankidetzan aritzea

Esparru honetako jarduerak aisialdi osasungarriko programetan "jardunbide egokiak" ikasteko eta identifikatzeko prozesu bat behar dutela irizten zaio, eta baita beste udalekin lankidetzan aritzea ere.



PERTSONAK
Elgoibar,
pertsonek
arretan
erreferentia

Gaztelekuen antolamendua

Gaztelekuen antolamendua analizatzea eta horri ekitea proposatu da, gainerako biztanleekin bizikidetzan egokia bultzatzeko eta sustatzeko xedearekin.



4. proiektua

Pertsona etorkinen abegia eta arreta

PERTSONAK

Elgoibar,
 pertsonen
 arretan
 erreferentea

Immigrazioa kultura eta gizartea aberasteko eta lanari eta etorkizunari ekarpena egiteko aukera bat da gure gizartearentzat. Elgoibarren fenomeno gorakorra da gainera, eta hori ondo kudeatzea eta abegi egokia egitea giltzarria da udala pertsonen arretan erreferente bihurtzeko.

Marko horretan, ondorengo jarduerak bultzatzeko komenentzia proposatu da:

Pertsona egoiliar berriei abegia egiteko programa

Abegi-eskuliburu bat (eleanitza) lantzea aurreikusten du, helburu hauekin:

- pertsona etorkinari orientabidea ematea bere arazoak konpontzeko zer erakunde eta zerbitzutara jo behar duen jakin dezan, bereziki arlo hauetan: osasuna, hezkuntza eta titulazioa, etxebizitza, enplegua, lana edo bizilekua izateko baimena, etab.
- Elgoibarko udalerrriaren ezaugarriez eta bertako enplegu-aukerez informatzea.

Horretarako, lan bila dabiltzan pertsonen orientabidea indartuko duen LANBIDEn bulego bat zabalduko da laster udalean.

Ezagutza eta kultura-aniztasuna sustatzea

Udalean bizitzera etortzen diren pertsona berriei abegia egin eta orientabidea emateaz gain, beharrezkotzat jotzen da kokatutako kolektiboen ezagutzan sakontzea, euren premien eta espektatiben berri jakitea.

Horretarako ekitaldiak eta jarduerak (jardunaldiak, feriak...) antolatzea proposatu da, kultura eta tradizio berriak hurbiltzeko eta ikasteko aukera izan dadin (kultura-aniztasuna sustatzen laguntzeko...), eta hori egiteko udalean bizi den biztanleria etorkin berriaren parte-hartze aktiboa izanda.

Eskolaz kanpoko jardueretarako laguntza ekonomikoa

Haur etorkinak gizarteratzeko elementu lagungarri gisa, aproposa da Udalak laguntza ekonomikoen ildo bat (bekak) ezartzea, eskolaz kanpoko jardueren kostua estaltzeko familia etorkinen kasuan, eta orokorrean, eskasia ekonomikoko egoeran bizi diren familia egoiliarrentzat.

5. proiektua

Egoera babesgabeen dauden pertsonen gizarte-kohesioa eta gizarteratzea

PERTSONAK

Elgoibar,
pertsonek
arretan
erreferentia

Pertsona babesgabeen gizarte-kohesioa eta arreta bultzatzeak eta indartzeak, oro har, oraingo gizarte-zerbitzuen hedapena eta udaleko giza baliabideak egokitzea eskatzen du batetik, eta berariazko kolektiboetan esku hartzea, bestetik.

Gizarte-zerbitzuen eskaintza hedatzea

Dauden laguntza eta baliabide publikoen (etxeko laguntza, adibidez) onuradun izan litekeen biztanleriak ez du beti horien berri edota horiek eskuratzeko baldintzen berri.

Beraz, beharrezkotzat jotzen da dauden laguntza, programa eta zerbitzuen eskaintzaren katalogo bat lantzea (kolektibo hartzaileak, laguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzak, nola eta non eskatu, eta informazio gehiago lortzeko bideak).

Katalogo hori egitearekin batera, komunikazioko eta hedapeneko beste ekintza batzuk burutu beharko dira zerbitzuen erabiltzailea izan litekeen biztanleriaren artean.

Laguntza integrala tratu txarrak hartutako emakumeei

Aurrekontuetan jasota dagoen bezala, tratu txarrak hartutako emakumeentzako baliabide ekonomikoaren eskuragarritasuna barne hartuta dago, zerbitzu juridikoaren eta laguntza psikologikoaren bidez.

Lan-orientabidea egoera babesgabeko pertsonentzat

Lanari buruzko ikastaroak eta orientabidea erraztea proposatu da, batez ere gizarte-laguntzak jasotzen dituzten pertsonen, horiek lanean txertatzeko xedearekin.

Berariazko jarduerak egoera babesgabeko pertsonentzat

Gizarte-bazterketa edo pobreziako egoeran dauden pertsonentzat arreta bereziko berariazko jarduerak garatzea proposatu da.

Halaber, orientazio sexualarengatik edo genero-identitatearengatik edozein bereizkeria errotik kentzeko kultura sustatzea aurreikusi da.



PERTSONAK
Elgoibar,
pertsonek
arretan
erreferentia

Udaleko giza baliabideak egokitzea

Gizarte Zerbitzuen arloan lanpostu bat sortzea aurreikusi da, heldu beharreko ekintzekin lotutako langile-eskasia dela bide. Udal-aurrekontuan aurreikusitako ekintza horrek diagnostikoan identifikatutako defizit argi bat estaltzea ekarriko du berekin.

Udalak pertsonen arretan erreferente bihurtu nahi badu, udaletik eskainitako zerbitzua kalitatekoa izan dadin zaindu behar du, eta horretarako ezinbestekoa da baliabideen egokitzapena bermatzea.



6. proiektua

Makina-erremintaren hiriburua

ENPRESA- ETA LAN- DINAMIZAZIOA

Elgoibar, Makina- erremintaren eta Prestakuntzaren hiriburua

Elgoibarrek Euskal Herriko eta Estatuko makina-erremintaren sektoreko enpresa ugari biltzen ditu, horien artean sektoreko enpresa nagusia. Jarduera-sektore bateko kontzentrazio horrek berrikuntza, modernizazio eta lehiakortasun-ahalmen garrantzitsua erakutsi du azken urteotan, bere produkzioaren % 57 kanpo-merkatuetara zuzentzeak frogatzen duen bezala.

Hori indar nabarmena da udalaren etorkizunerako, eta horren dinamismoa baliatzeaz gain, batetik jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzea, eta bestetik, enpresako gizarte-erantzukizunaren bidez hurbileko ingurunearekiko harremana bideratu eta babestu behar ditu.

Gogoeta horiek abiapuntu hartuta, Elgoibarrek makina-erremintaren hiriburu gisa duen tokia indartu nahi duten hainbat ekintza proposatu dira.

Elgoibarko enpresak ezagutuz

Udaleko industria-enpresak gehiago eta ezagunagoak izan daitezke bertako biztanleriarentzat, enpresen lehiakortasun-premia berriei erantzungo dien biztanleria prestatu baten eskari bat ere badagoen une batean.

Garatu beharreko jarduera zehatzak proposatu dira informazioaren (enpresa-gida bat lantzea), hedapenaren (udalaren web-orriaren eta paperaren bidez), sentsibilizazioaren (bisitak eta enpresaren astea egitea) eta garapenerako lankidetzaren (enpresa-premiak detektatzea eta administrazioarekin lankidetzan aritzea) esparruetan.

Elgoibar, industriarako kalitatezko kokapena

Epe ertain zein luzera udalean sortutako industria-hedapenari eusteko industria-jardueretarako espazio berriak sortzea eta erabilgarri izatea giltzarria da tokiko etorkizun ekonomikorako. Bestetik, industrialde eta fabrikazioko kokalekuetako batzuek egoera andeatu samarra dute, mugikortasunari, estetikari, seinalaztapenari, zerbitzuei... dagokienez, horien ibilbide luzearen ondorioz, neurri handi batean.

Ildo horretan, enprekin batera bertako ingurunean egoera hobetzeko jarduerak analizatzea eta garatzea proposatu da, udaleko ekonomia-jarduera garatu ahal izan dadin.

**ENPRESA- ETA
LAN-
DINAMIZAZIOA
Elgoibar,
Makina-
erremintaren eta
Prestakuntzaren
hiriburua**

Tokiko Lehiakortasun Klusterra

Ekimen hau sektoreko eta udaleko enpresa liderren (enpresa traktoreak) eta enpresa laguntzaile posibleen artean (ETE azpikontratatistak) garatzea proposatu da, tokiko kluster gisa.

Helburua enpresa traktoreen ezagutza hurbileko enpresa azpikontratista posiblei helaraztea da, eta hala badagokio, azpikontratista-sarea eta "in situ" arreta eta lankidetzaren hobetzea ere bai.

Enpresa eta Ekonomia Batzordea

Aipatutako jardueri eta Plan honetan barne hartutako beste jardueren batzuei modu egokian heltzeko xedearekin, bidekotzat jotzen da Udalean ekonomia- eta enpresa-jardueraren esparruarekin lotutako jardueren multzoa bere baitan hartuko duen Batzorde bat sortzea: industria, enplegua, merkataritza, etxebizitza eta garraioa.

7. proiektua

Elgoibar Berritzen

ENPRESA- ETA LAN- DINAMIZAZIOA

Elgoibar, Makina- erremintaren eta Prestakuntzaren hiriburua

Industria-oinarria eta udalean presentzia handiko sektoreak –egungo ekonomia- eta lan-ingurune mesedegarriaren protagonistak– indartzearekin batera, udaleko enpresa-sarearen aniztasuna epe ertainean areagotzea giltzarritzat hartzen da.

Bai 90etako hamarkadaren hasieran makina-erremintaren sektoreak ezagutu zuena bezalako egoera gaizto posibleen kontrako babesleku gisa, eta bai tokiko produkzio-oinarrian sektore eta jarduera gorakor berriak txertatzeko – ezaugarri gisa nazioarte-ingurunean eskari handiko aurreikuspena eta hezkuntza-maila handiko pertsonak laneratzea dituztenak–.

Enpresa berriak kokatzea eta sustatzea

Udalean presentzia txiki edo hutsaleko jardueretako enpresa berriak kokatzeko espazio bat (eraikin/enpresa-parke modukoa) egokitzea, udaleko ekonomiaren eta lanaren dinamizazioa eta aniztasuna bultzatzeko faktore gisa.

Horrekin batera, eta ikastetxeekin eta prestakuntza-zentroekin lankidetzan, ekintzaitzarekin sentsibilizatzeko eta hori sustatzeko jarduerak garatzea proposatu da.

Zerbitzuen kalitatea eta berrikuntza sustatzea

Tokiko ekonomia-jardueraren aniztasunak eta bultzadak hirugarren sektoreko jardueren aurrerapen, hobekuntza eta hedapen jarraitua behar du, biztanleria egoiliarren eta bisitariaren zein enpresen zerbitzu-eskariari arreta emateko.

Testuinguru horretan, turismoaren eta merkataritzaren arloko zerbitzuak emateko kalitatea hobetzea proposatu da, eta emandako zerbitzuen kalitatea hobetzeko ekintzak lantzea (prestakuntza, ordutegiak...).

Halaber, enpresa-sektorearen eta hurbileko zerbitzuen eskarien arteko erlazio handiago bati lotutako ahalmenen analisia eta jarduera berrien bideragarritasuna analizatzea proposatu da.

Tokiko nekazaritzako produkzioa sustatzea

Nekazaritzako produkzio ekologikoa eta kalitatekoa bultzatzea, ibilbidea eta lehengo indarrak abiapuntu hartuta, dinamizazio ekonomikoaren beste elementu bat da, eta produkzio hori eta merkaturatzeko ingurune aproposa ezagutzea (nekazaritza ekologikoko feriak) ere bai.

Eta halaber eta ekintzaitza eta berrikuntza sustatzeko multzoaren barruan, nekazaritza-sektoreko ekimenak sustatzeko berariazko ekintzak biztanleria gaztearen artean.

8. proiektua

Prestakuntzaren hiria

ENPRESA- ETA LAN- DINAMIZAZIOA

Elgoibar, Makina- erremintaren eta Prestakuntzaren hiriburua

Aitortutako ibilbidea duten prestakuntza-zentroak daude barruan zein kanpoan (IMH, Institutua...), eta laster zabalduko den mekanizazioko eta galdaragintzako prestakuntza-zentro berri bat gehitu behar zaie horiei.

Horrela bada, IMHK Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak (Ciclos Formativos) eskaintzen ditu, ikasketa eta lana, unibertsitateko ikas-ekinezko ingeniari-tza-ikasketak, etengabeko prestakuntza eta e-learning uztartuz.

Eta BHIK DBH, Batxilergoa, Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak (automozioa, administrazioa eta finantzak) eta etengabeko prestakuntza eta lanerako prestakuntza.

Testuinguru horretan, zenbait ekintza proposatu dira Elgoibar prestakuntza-zentro gisa indartzeko.

Prestakuntzako eta ikasleen harrerako eskaintza berria garatzea

Beste proiektu batzuei lotuta, adineko pertsonen eta haurren arretari, ingurumenari, eta tokiko inguruneke beste jarduera gorakor batzuei lotutako esparruetan prestakuntza bultzatzeko premia egiaztatu da.

Eta prestakuntzarekin lotutako beste erakunde batzuekiko lankidetzaren bideragarritasuna analizatzea proposatu da, udalean prestakuntzako jarduera presentzialak eskaintzeko (EHU, Kutxa...), bai lehengo ibilbidea eta baliabideak, bai udalaren kokapen estrategikoa abiapuntu hartuta.

Bestetik, prestakuntza-eskaintza nazioartekotzen laguntzea, ikasle atzeritarrak erakartzea eta horiek gizarte- eta lan-ingurunera egokitzea bultzatuz.

Aipatutako jarduerekin batera, batez ere ikasleei zuzendutako egoitza baten bideragarritasuna analizatzea proposatu da.

Biztanleen artean etengabeko prestakuntza eta ikasketa sustatzea

Gizartearen (biztanleria, enpresak, administrazioa) etengabeko ikasketa eta prestakuntza sustatu nahi da, bai lanaren, bai gizartearen eta harremanen esparruetan, eta bereziki lan-merkatu ordainduan txertatu gabeko biztanleria aktiboa izan daitekeenarentzat.

Eta horretarako tresna gisa, ikastetxeek, administrazioak, enpresak eta hiritarrek osatutako prestakuntzako eta ikasketako mahai bat eratzea, hori hedatzeko eta udala indartzeko helburuarekin, bai prestakuntza-eskaintzaren kalitateagatik, eta bai eskaintza horrek bertako zein kanpoko enpresen eta gizartearen premietara duen egokitzapenagatik.



**ENPRESA- ETA
LAN-
DINAMIZAZIOA**
Elgoibar,
Makina-
erremintaren eta
Prestakuntzaren
hiriburua

Prestakuntzarekin lotutako ekitaldiak erakartzea

Udalaren eskaintza integrala kokaleku egoki gisa, eta espazioa/zerbitzuak eskaintza neurri handi batean erakunde eta administrazioetatik sustatutako prestakuntzarekin lotutako ekitaldi eta jardunaldiak (tamaina ertainekoak) egiteko bultzatzea proposatu da.



9. proiektua

Hiri-espazio erakargarria eta kalitatekoa

HIRIGINTZA- HABITATA Elgoibar, bizitzeko eta bisitatzeko udal erakargarria

Hiri-sarea osatzen duten espazioen integrazioa eta garapena zailtzen dituzten oztopo garrantzitsuak ditu udalaren orografiak naturaren eta azpiegituren aldetik.

Egindako bileretan, hiri-sarearekin lotuta, hobetu egin behar diren zenbait alderdi detektatu dira hiri-espazio bizigarriago bat eratzeko, garapen-ahalmen handiko naturaren, espazioaren eta ondarearen arloko baliabide batzuk oinarri hartuta.

Lehenago egindako beste dokumentu batzuek ere, horien artean PERCO planak eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak, adierazten dituzte aipatutako alderdi horiek.

Jarraian, hautatutako esku-hartzeak bilduko dira:

Deba ibaiaren ingurunea biziberritzea

Deba ibaia, udala zeharkatu eta zatitzen duenez, Elgoibarri erakargarritasuna ematen dion elementu berezi bat da, eta hiria biziberritzeko ardatz gisa baliatu behar den ezaugarri berezile bat da (etxaurreak, pasealekuak...). Orokorrean, ibilgua eta horren ingurunea biziberritzea eta birgaitzea aintzat hartzen ari da.

Herrigunea berritzea

Herrigunea ondare-baliabiderik garrantzitsuena da bere irisgarritasunagatik eta erakargarritasunagatik, eta Birgaitze eta Antolamendu Plan baten bidez hobetu behar da (oinekoentzat ipintzea, altzariak, argiteria, etxaurreak, zoladura, lore-askak...).

Plan horrek arkitektura-ondarea mantentzea eta balioestea eta hiriko azpiegiturak hobetzea sustatuko du halaber.

Barne-irisgarritasuna hobetzea

Elgoibarren orografia zailak, azpiegiturek eta oztopo naturalek barne-irisgarritasuna hobetzeko ekintzak eskatzen dituzte, udalaren barruan, herrigunearen eta lehen zabalgunearen eta gainerako auzoen artean mugikortasuna errazteko.

10. proiektua

Merkataritza-gunea

HIRIGINTZA- HABITATA

Elgoibar,
bizitzeko eta
bisitatzeko udal
erakargarria

Udalak merkataritza aldetik zuen garrantzia eskualdean murriztu egin dela erraz egiazta daiteke, eta horrekin batera, merkataritza-eskaintza hobetzea eskatzen du biztanleriak.

Eta merkataritza-ahuleziako eta zerbitzu-eskasiako faktoreak antzeman dira, garapen-ahalmena duen kokaleku bat eta irisgarritasuna oinarri hartuta.

Testuinguru horretan, proposatu diren jarduerak hauek dira:

Azpiegiturak eta hiri-tresneria hobetzea

Hiri-tresneria hobetzeak irudia hobetzen duela egiaztatu da, eta beraz, orokorrean mantendu, berritu eta hobetu egin behar da herrigunean eta udalean oro har.

Illo horretan, hiri-azpiegiturak egokitzea (oinezkoen alderdiak, irisgarritasuna, zoladura, argiteria...), biztanleria egoiliarren bizi-kalitatea hobetzearekin batera, merkataritza-jardueraren dinamizaziorako lagungarria da.

Erakartzeko ahalmena duten merkataritza-ekipamenduak indartzea

Instalazioen eta horien kudeaketaren hobekuntzaren bidez. Horrela, Merkatua kanpotarrak erakartzeko ahalmena duen ekipamendu bat da, eta bere instalazioak eta kudeatzeko modua egokitu behar ditu merkataritza-erakarpenerako lokomotorra bihurtzeko.

Komunikazioko ekintzak

Ekipamenduen eta zerbitzuen hobekuntzak modu planifikatu eta ordenatuan aurkeztu behar zaizkio helburu den bezeroari, komunikazioa eraginkorra izan dadin. Biztanleria egoiliarak eta bisitariak komunikazio-jardueren helburu izan behar dute Elgoibar merkataritza-gune eta bizileku erakargarri gisa proiektatzeko.

11. proiektua

Ondarea balioztatzea eta erakargarri turistikoa

HIRIGINTZA- HABITATA

Elgoibar,
bizitzeko eta
bisitatzeko udal
erakargarria

Udalak neurri handiagoan bultzatu behar du jarduera turistikoa, bai baliabideen, bai produktuen ikuspegitik.

Proposatutako jarduerak biztanleria egoiliarren mesederako zein kanpoko biztanleriarentzako erakargarri turistikorako diren ekintzak hartzen dituzte barne.

Ildo horretan, ondorengo jarduerak aurreikusi dira:

Paisaia- eta arkitektura-ondarea balioztatzea

Paisaia- eta arkitektura-ondarea zenbait ekintzaren bidez balioestea beharrezkotzat jotzen da, horien inbentario bat eginez hasita, zaintzako eta hobekuntzako jarduera batzuk garatu aurretik.

Eskaintza turistikoa egituratzea

Baliabide turistikoak behar bezala definitzearekin batera, bidezkotzat jotzen da eskaintza turistikoaren kudeaketa egituratu bat sustatzea, horren ahalmenak indartzeko helburuarekin. Arlo horretan, Makina-erremintaren Museoaren lankidetzak eta eskualdean txertatzeak garrantzia hartzen du.

Seinaleztapena eta turismo-sustapena

Halaber, ikuspegi global batetik heldu behar zaio turismo-seinaleztapenaren hobekuntzari.

Eta gainera, egokitzen da eskaintza turistikoaren eta ekitaldien publizitate eta sustapenerako jarduerak bultzatzea, eta esparru horretan eskualde-ingurunearekiko lankidetzak bilatzea.

12. proiektua

Barne- eta kanpo-irisgarritasuna

HIRIGINTZA- HABITATA

Elgoibar, bizitzeko
eta bisitatzeko
udal erakargarria

Udalaren kokapen estrategikoa eguneratzea eta horren jarraipena egitea, eta barne-mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea proiektu honen barruan daude.

Bi ardatz horiek ondoren aurkeztuko diren garatu beharreko jarduerak hartzen dituzte barne:

Aparkatzeko espazioak

Aparkatzeko espazioen defizita agerikoa da hiri-ingurunean. Ondorioz, aparkalekuen eskaintza areagotzean eta aparkalekuak eraikitzeke espazio potentzialen analisisian aurrerapenak egitea proposatu da, udaleko mugikortasun-politika baten barruan.

Bideen eta oinezkoen irisgarritasuna

Barne-irisgarritasunaren hobekuntza eta egokitzea bidezko zat jotzen da oro har, eta udaleko industrialdeetarako bideen eta oinezkoen irisgarritasuna egokitzea aipa daiteke bereziki.

Trenbide-lotura hobetzea

Eibar eta Elgoibarren artean Euskotrenen sareko loturen maiztasuna handituz; epe motzean 15 minutura murriztea aurreikusi da.

Azpiegituren ardatzetan txertatzea

Udala azpiegituren ardatzetan txertatzeko analisiari plan nagusien jarraipena eginez heltzen zaio.

Horrela, Aldundiak Debabarrenarako duen Garraio Publikoaren Planak, batetik, egun ematen den zerbitzua hobetzea esan nahi du, Eibar-Deba ardatzeko udalak lotuko dituzten linea lasterrak txertatuz; eta bestetik, Debabarrenako udalak barnealdetik Eibar hiri nagusiarekin artikulatzea eta komunikatzea, maiztasuna handituz, eta horrek eskualde mugakideekin eta Donostiarekin lotura handiagoa izatea ahalbidetzen du.

13. proiektua

Etxebizitza eskuratzea sustatzea

HIRIGINTZA- HABITATA

Elgoibar,
bizitzeko eta
bisitatzeko udal
erakargaria

Prezio aldetik etxebizitza eskuragarriaren eskaintza eskasak biztanleria gaztearen emantzipazio-adinaren atzerapenean eragiten du, eta horren ondorioz, jaiotza-tasaren inpaktu negatiboan.

Biztanleria gazteari etxebizitza-eskaintza egoki baten bidez eustea eta adineko pertsonak okupatutako etxebizitzaren egokitzapen-premiari erantzutea ondorengo jardueretan gailentzen diren funtsezko orientabide batzuk dira:

Babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza

BOEen bizitegi-sustapenen garapena (Maala, Santa Ana, Ubitarte Buru), bereziki biztanleria gazteari zuzendua, lehentasuneko premia bat da. Ildo horretan, badaude jarduera horietarako garatu behar diren espazioak

Etxebizitza hutsak eta alokairukoak mobilizatzea

Eusko Jaurlaritzaren BIZIGUNE etxebizitzaren programaren garapena erraztea. Horren helburua hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzea da eta horien erabilera merkatu libreko etxebizitza bat eskuratzeko nahikoak ez diren baliabide ekonomikoak dituzten pertsonen erraztea.

Halaber, gazteriak lehen etxebizitza eskuratzeko laguntza ekonomikoa aurreikusi da.

Lokalak eta behe-solairuak etxebizitza bihurtzea

Lokalak eta behe-solairuak etxebizitza bihurtzeko udal-ordenantza onartzea.

Etxebizitzak adineko pertsonen premietara egokitzea

Adineko pertsonentzat irisgarritasuna (arrapalak, igogailuak...) eta euren etxebizitzaren bizigarritasuna (komunak...) adineko pertsonentzako etxebizitzaren oinarriko funtzionaltasuna egokitzeko jardueren bidez hobetzea kolektibo horren bizi-kalitatea eta -baldintzak nabarmen hobetzen dituzten gizarte-premia bat dira.

14. proiektua

Kirolaren eta kulturaren hirira

HIRIGINTZA- HABITATA

Elgoibar, bizitzeko
eta bisitatzeko
udal erakargarria

Elgoibarrek gizarte-aitorpena eta -estimua dituen kirol-tradizio bat dauka (adibide gisa, Juan Muguerza nazioartekoa aipa daiteke), eta baita kultura-eskaintza oso sustraitua ere, kontzentratuegi badago ere.

Proposatu diren hobekuntzarako ekintzek, batetik, kirol- eta jolas-instalazioak handitzean eta berritzean jarriko dute arreta guztia; eta bestetik, kultura bultzatzean, bertako artistak sustatuz eta ekipamenduak kultura-jarduerak egiteko hobetuz.

Aisialdirako espazio estali balioaniztuna

Kolektibo, jarduera eta urte-sasoi guztietara egokitutako aisialdirako espazio bat egokitzea.

Klimatologia alde batera utzita, kanpoko jarduerak etengabe egiteko aukera emango duen espazio publiko estali baten gabezia detektatu da.

Kirolerako eta aisialdirako area berriak

Orain aisialdirako eta kirolerako dauden areak (Mintxeta kiroldegia) handitzea aurreikusi da, eta ingurune naturalean atsedenlekuak sortzea eta landa-bideak indartzea.

Eta oro har, aisialdirako espazioetan dagoen hornidura egokitzea eta handitzea, espazio berri posibleak analizatuz, horiek hobetzeko eta indartzeko.

Horrekin batera, koherentetzat jotzen da jolas- eta kirol-jardueren programazioa bultzatzea, bereziki espazio publiko irekietan.

Bidegorri-sarea eta BTT zirkuitua

Udalan bidegorri-sare bat (San Lorentzo, Maltzaga, Altzola) bultzatzea eta sortzea Foru Aldundiarekin lankidetzan.

Horrekin batera, Mintxetan BTT zirkuitu bat garatzea, arretarako leihatila, alokairu-zerbitzu bat eta konponketa-lantegi txiki bat barne hartuta.

Haurrentzako jolaslekuen eskaintza

Nahikoa erakarpen-ahalmena duten haurrentzako tamaina ertaineko jolaslekuak garatzea.



**HIRIGINTZA-
HABITATA**

Elgoibar, bizitzeko
eta bisitatzeko
udal erakargarria

Tokiko kultura-produkzioa bultzatzea

Zenbait arte-disziplinara barne hartuta eta eskaintza urte osoan zehar modu iraunkor eta egonkorragoan zainduta, tokiko artisten sustapen eta proiektiorako lagungarri izan dadin.



15. proiektua

Ekintzak auzoetan

HIRIGINTZA- HABITATA

Elgoibar,
bizitzeko eta
bisitatzeko udal
erakargarria

Udalan, lurraldearen barne-kohesioak berariazko jarduera-multzo bat eskatzen du auzoetan, horien berariazko defizitei arreta emateko.

Ildo horretan, ondorengo jarduerak aurreikusi dira:

Oinarrizko azpiegiturak landa-inguruneetan

Landa-auzoek eskasia nabarmenak dituzte edateko uraren oinarrizko azpiegituren horniduran, ur zikinen kudeaketan, eta errepide eta landa-bideetan.

- San Migel auzoan edateko ura banatzea, eta ondoren beste hiru landa-auzotan
- baserrien egoeraren errolda ur zikinak kudeatzeko oinarrizko azpiegiturei dagokienez
- errepide eta landa-bideen sarea mantentzea eta egokitzea, eta zementuzko bideak asfaltatzea

Beste ekintza batzuk auzoetan

- Elkartea San Pedron
- Urasandin, N-634 errepidearen loturan eta San Migeleko errepidean irisgarritasuna hobetzea
- San Roken mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea (Erretxindi gainaldea berriz urbanizatzea)
- Altzolako zeharbidea egokitzea
- Sigman eskailera mekanikoak eraikitzea eta N-634 errepidearekiko lotura hobetzea

16. proiektua

Ingurumenaren iraunkortasuna

HIRIGINTZA- HABITATA

Elgoibar,
bizitzeko eta
bisitatzeko udal
erakargarria

Ingurumena, baliabide naturalak eta energia-eraginkortasunaren hobekuntza zaintzea proposatutako proiektu estrategikoen eta jardueren multzoaren zeharkako ardatza da.

Hala ere, epe ertain eta luzera garapen eta garrantzi handiagoa izateko, komenigarritzat jo da ondoren aipatuko diren berariazko jardueren multzo bat azpimarratzea.

Ildo horretan, ondorengo jarduerak aurreikusi dira:

Hiritarrak sentsibilizatzea

Sustapena eta hiritarrak sentsibilizatzea (bereziki ikasleen artean), esparru pribatuan zein publikoan ingurumena zaintzeari eta jarrera eta portaera iraunkorrei dagokienez.

Halaber, hondakinen baldintzen eta kudeaketaren hobekuntza txertatu da, bereziki landa-inguruneetan, eta ingurumenarekiko errespetuzko kontsumo-ohiturak.

Ekonomia-jarduera berriak

Nekazaritzako, industriako eta hirugarren sektoreetan ingurumen-iraunkortasunarekin, energiarekin eta klima-aldaketarekin lotutako ekonomia-jarduerak, ekintzailatza eta prestakuntza bultzatzea. Esparru horretan prestakuntzako eta hedapeneko jarduerak sustatzearen bideragarritasuna analizatzea.

Udala ingurumen-erreferente gisa

Udala sustatzea, eta bere jardueren multzoan (energia aurrezte, kontsumo iraunkorra...) ekologiarekiko eta ingurumenarekiko sentsibilitatearen erreferente eta eragile bihurtzea.

17. proiektua

Hiritarren arreta eta partaidetza

UDAL ERAGINKOR ETA ERAGILEAGO BATERANTZ

Elgoibar,
kalitatearen
kudeaketa duen
Udala

Udal-jardunaren eraginkortasuna biztanleriaren premien gogobetetasunari buruzko emaitzekin neurtzen da. Horretarako, zerbitzuen eskaintza hiritarren eskarira egokitzea modu etengabea zaindu behar da.

Funtsezkoa da hiritarrak udalaren zeregin guztiaren oinarrizko erreferentea bihurtzea, eta horrek hauxe dakar berekin:

Hiritarren arreta eta informazioa

Hauek barne hartuz:

- Udal-zerbitzuei buruzko informazioa eskuratzea hobetzea, kanal edo bide posibleak hiritarren profilen edo tipologiaren aniztasunera egokituz.
- Hiritarren Arreta Zerbitzua bultzatzea.
- Zerbitzu publiko telematikoen eskaintza garatzea eta hobetzea.

Hiritarren partaidetza sustatzea

Horretarako hauxe aurreikusi da:

- Hiritarren partaidetzaren arloko prestakuntza-ekintzak biztanleriarentzat, horren alde egiten duen kultura bat sortzeko nahitaezko aurrebaldintza gisa.
- Proiektu estrategikoei dagokienez, partaidetza publikoko eta elkarrekin lankidetzako mekanismoak diseinatzea.
- Beste jardun-ardatz batzuetan (gazteak / aisialdia, adinekoak / zahartze aktiboa, immigrazioa...) aipatutako Lantaldeen esperientzia pilotuak abian jartzea eta dinamizatzea.

Zerbitzuak hiritarren premietara begira jartzea

Udal-zerbitzuak aldizka ebaluatzeko protokoloak modu sistematikoan txertatzea, premietarako egokitze-maila eta zerbitzua ematean lortutako emaitzak ezagutzeko helburuarekin.

18. proiektua

Udal-kudeaketa eraginkorra

UDAL ERAGINKOR ETA ERAGILEAGO BATERANTZ

Elgoibar,
kalitatearen
kudeaketa duen
Udala

Udal-kudeaketa hobetzeko esparru zehatz batzuk identifikatu dira; horiekin arrazionaltasun handiagoa lor daiteke, eta kasu batzuetan, hobekuntzak horien eraginkortasunean.

Lurzorua eta etxebizitza kudeatzea

Etxebizitzaren eta industria-lurzoruaren udal-kudeaketa, adibide batzuetan, udalen ekonomia-osasuna hobetzeko eta proiektuak garatzeko epeak hobeto planifikatzeko eta kudeatzeko oso lagungarriak izan diren jardun-eremu horietako bat da.

Kontuan hartu beharreko lehen giltzarria udal-ekimena elementu estrategiko nagusia den lurzoruaren kudeaketaren buru izateko formula ezberdinak aztertzea da. Ildo horretan, lurzoruaren kudeaketa ahalbidetuko duen sozietate instrumental bat sortzea proposatu da.

Kontratazioa eta erosketak

Jarduteko beste arlo posible bat Udalaren kontratazio- eta erosketa-funtzioa hobetzea eta arrazionalizatzea da, protokoloak ezarriz edota berraztertuz (mikroerosketak, kontratu negoziatuak...).

Gai horren inguruan, Partzuergoen mailan jarduten saiatu zen, eta Eudelen Plan Gidarian dirau oraindik (erosketa-zentrala).

Hirigintza


Hirugarren jardun-area batek obren, lizentzien emakidaren eta hirigintza-arloari lotutako tasen kontrol-funtzioa indartzea bilatzen du.

Epe motzean heldu beharreko nahitaezko jarduerak dira hirigintza-arloa indartzea eta udal-gaien iraunkortasuna eta arreta jarraitua bermatuko duen arkitekto propio bat kontratatzea.

Laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzea

Beste maila batean, laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzeko funtzioa hobetzeko komenentzia proposatu da; beste hitzetan, udal-proiektuak finantzatzeko ildo posibleak jasotzea ("antena") eta bilatzea indartu behar dira.

Ildo horretan, baina kasu honetan emandako gizarte-laguntzei begira, horien jarraipena indartzea ere proposatu da.



**UDAL
ERAGINKOR ETA
ERAGILEAGO
BATERANTZ**

Elgoibar,
kalitatearen
kudeaketa duen
Udala

Jardunbide egokiak eta lankidetzak

Bidezkotzat jotzen da Udalak aipatutako esparruetan (jardunbide egokiak) beste udal batzuekin mota guztietako esperientzia-trukeak esploratzea eta bideratzea.



19. proiektua

Euskararen erabilera

UDAL ERAGINKOR ETA ERAGILEAGO BATERANTZ

Elgoibar,
kalitatearen
kudeaketa duen
Udala

Elgoibar gogotsu ari da euskara indartzeko lanean, bai transmisioari, bai erabilerari eta kalitateari dagokienez.

Horren froga dira Udalak landutako Plan Estrategikoak, eta horien helburu nagusia nahi duenak euskaraz bizi ahal izateko aukera bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak sustatzea da. Azken batean, euskararen aldeko ekintzak areagotzen saiatu dira, norberaren, gizartearen eta ofizialtasunaren esparruetan normalizazio osoa lortzeko.

2007-2010 Planean aurreikusitako jarduera nabarmenen artean ondorengoak daude:

Elgoibarko ahozko ondarea biltzea, katalogatzea eta hedatzea (abian)

Gerra aurreko ondare idatzia biltzea eta digitalizatzea

Haur eta gazteentzako plan integrala

Udal-toponimiaren analisisa

Udaleko egoera soziolinguistikoaren analisisa

Legegintzako Planak hizkuntza-politikaren esparruan definitutako jarduera guztiei estaldura eta bultzada eman behar dizkie, bereziki komunikabideekin lotutakoa azpimarratuz.

20. proiektua

Udalaren gizarte-erantzukizuna

ERREFERENTZIAKO UDAL BATERANTZ

Elgoibar, gizarte-
erantzukizuna duen
Udala

Herri Administrazioak eredu izan behar du gizarte-erantzukizuna adierazten duen goi-maila bat taxutzen ari diren esparruetan erreferentziako jardunbideak sustatzen eta erabiltzen.

Aukera-berdintasuna eta onez bateratzea

Aukera-berdintasunaren arloa eta laneko, kargu publikoko eta familiako zereginak onez bateratzeko arloak horren adibide argiak dira eta, beraz, bi esparru horietan neurriak eta ekintzak hartzeko premia proposatu da. Familiako eta kargu publikoko zereginak bateratzeko kasu zehatzean, EUDELen Gobernagarritasun Hitzarmena erreferentzia-marko egoki bat da.

Ekologiarekiko eta ingurumenarekiko sentsibiltatea

Ekologiarekiko eta ingurumenarekiko sentsibiltatea gizarte-erantzukizunaren arloan txertatzen da, baina ez dago hemen hartuta, txostenaren beste puntu batean heltzen zaiolako.

Proiektu estrategikoen kudeaketa- eta jarraipen-baliabideak

Plana gauzatzeak bultzatzeko, baliabideak mobilizatzeko, jarraipeneko ataza batzuk bere gain hartzea dakar; ebaluaketa egitea ere beharrezkoa da eta horretarako jarraipen eta helburu-adierazleak osatu beharko dira.

Lortu nahi diren helburuak betetzen direla zaintzeko eta aplikatutako bideak kontrolatzeko funtzioa giltzarria da proposatutako proiektuak ondo amaitzen direla bermatzeko, aurreikusitako epe eta baldintzekin.

Planak gaikako eta erabakitzeko zenbait arlotan engaiatutako eragile ugari mobilizatzea eskatzen du gainera, eta proiektuen finantzaketa egoki bat lortzeko lan egitea.

Testuinguru horretan, Plana burutzeko beharrezkoa da giza baliabideen eta materialen hornidura egoki bat bermatzea. Horregatik, Planaren Idazkaritza Nagusiaren funtzioak bere gain hartzen dituen figura bat izan behar litzateke, helburu batzuei, lan-programa bati eta atazen egutegi bati jarraituz proiektuen benetako aurrerapenean laguntzeko. Halaber, Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko formula edo mekanismo bat (Jarraipen Batzordea) definitu behar litzateke.